

2022KO ABENDUA

DONOSTIAKO EH BILDU

TURISMOA GOBERNATZEKO PROPOSAMENAK

ehbildu

1. SARRERA

Turismoa lehen mailako jarduera sozioekonomikoa da, eta, alde horretatik, desberdintasunak murrizten eta gizarte kohesionatu eta inklusiboak sustatzen lagundu behar du. Turismo Jasangarriaren Mundu Gutunak jasotzen duen bezala, gainera, turismoaren garapenak «gaur egungo baliabideak zaindu beharko ditu etorkizuneko belaunaldiei begira, gure ondarearen babesa eta osotasuna ziurtatuz». Eta hori bizitza erdigunean izango duen turismo-politika baten bidez bakarrik izango da posible.

Azken urteotan Donostian izan den turismoaren neurrigabeko hazkundearen ondorioak nabarmenak dira: etxebizitza eta oro har prezioak garestitzea; bizilagunak auzo jakin batzuetatik kanporatuak izatea; merkataritza-gentrifikazioa; kultura- eta hirigintza-ondarearen galera; espazio publiko eta komunitarioen, hots, harreman-espazioen saturazioa; azpiegitura eta zerbitzu publikoen gainerabilera; mugikortasun arazoak. Hau guztia ez da halabeharrez gertatu.

Turismoa ez da jarduera kaltegabea. Beste edozein jarduera ekonomikok bezala, eragin positiboak eta negatiboak ditu lurraldean, eta horien irismena eta pisua jarduera arautzeko eta antolatzeko ereduaren arabera izango da. Turismoaren garapena orekatua eta iraunkorra izan dadin, ezinbestekoa da gaur egungo eta etorkizuneko ondorioak kontuan hartzea, positiboak zein negatiboak. Kontua da Donostian indarrean dagoen turismo-ereduak ez dituela aintzat hartu jarduera sortzen ari zen kalteak. Are gehiago, sistematikoki ukatuak izan dira. Eta hori horrela izan da EAJ-PSO Eren turismo-politikak errentagarritasun ustez erraza eta azkarra lehenetsi duelako, sektore turistikoaren zati baten onurak herritarren ongizatearen ginetik jarriz.

Donostiako EH Bildurentzat ezinbestekoa da, are urgentea, indarrean dagoen turismo-eredua errotik aldatzea. Turismo-politika berri bat behar dugu, eraldatzailea eta etorkizun hurbileko erronkei aurre egiteko egokituta egongo dena.

Turismo jasangarria eta orekatua: karga-ahalmena

EH Bilduren turismo-politikaren erdigunean donostiarren ongizatea dago. Gure lehentasuna Donostia eta berean osatzen duten auzoak, auzo guztiak, bizigarriak izatea da, eta horretarako, turismo-politika bi printzipio nagusiren oinarrian garatu behar da: jasangarritasuna eta oreka.

Helburu edo helmuga estatiko bat baino gehiago, jasangarritasuna prozesu bat da. Inpaktuen eta ondorioen etengabeko jarraipena egin behar da, jarduerak sortzen dituen arazoak saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren prebentzio- eta zuzenketa-neurriak hartu ahal izateko eta alderdi positiboak sustatzeko. Horrela bakarrik izango da posible turismo-jardueraren eta gaurko nahiz biharko donostiarren ongizatearen arteko oreka.

Turismo jasangarria eta orekatua lortzeko neurriak karga-ahalmenarekin lotuta daude. Izan ere, «leku turistikoek» bolumenari eta intentsitateari dagozkion muga jakin batzuk dituzte, eta karga-ahalmenak, zentzu honetan, turismo-jarduera ingurune fisiko, ekonomiko eta soziala kaltetu gabe garatzeko bitartekoa eskaintzen du. Turismoaren Munduko Erakundeak (TME) honela dio karga-ahalmenari buruz:

BISITARIEN KOPURUA ETA BALIABIDEENTZAT KALTEGARRIAK DIREN EGOERAK GERTATU GABE LOR DAITEKEEN GARAPEN-MAILA MODU NEURGARRIAN EZARTZEN SAIATZEN DA. INGURUNE NATURALARENTZAT ETA INGURUNE ARTIFIZIALARENTZAT KALTE FISIKORIK ERAGIN GABE, TOKIKO KOMUNITATEARENTZAT KALTE SOZIAL, KULTURAL ETA EKONOMIKORIK ERAGIN GABE EDO GARAPENAREN ETA KONTSERBAZIOAREN ARTEKO OREKA JUSTUARI KALTERIK EGIN GABE LOR DAITEKEEN GAITASUNA DA.

Tokiko ekonomia sendo eta ez-menpeko baten alde

Azken urteotan turismoak pisu handia hartu du Donostiako ekonomian. 2017an hiriko lehen sektore ekonomikoa izan zen, BPGren % 13 ordezkatzuz, eta, azken datuen arabera, gaur egun % 15 inguru da. EH Bildurentzat, horrek hiriko ekonomiaren desoreka handi bat eragin du (adibidez, zientzia eta ikerkuntzak Donostiako BPGren %2,5 du). Desoreka handia, eta epe ertainean arriskutsua izan daitekeena gainera

COVID-19 birusak eragindako osasun larrialdiak agerian utzi zuen zenbaterainoko dependentzia garatu duen munduko ekonomiak erabat lurrunkorra den industria turistikoarekiko. Erakutsi zigun turismoak tokiko ekonomian sortzen duen mendekotasuna, eta horren adibide da atzerriko bisitarien mende dauden eskualdeak izan zirela kaltetuenak. Horrela izan zen Donostian ere. Lehen konfinamendua ezarri

zenean, eta munduko turismo-industria kolpetik gelditu zela, hiriko langabezia-tasaren igoera Gipuzkoakoaren edo EAEkoaren hirukoitza izan zen.

Turismoa fenomeno globala da, eta beraz, bere garapena mundu mailako prozesu, dinamika eta gertakarien mende dago hein handi batean. 2010-2011ko «Arabiar Udaberria»-k Mediterraneo ingurua ezegonkortu eta mapa turistikoa aldatu zuen bezala, 2020an Txinan atzemandako agente patogeno bat izan zen turismoaren inoizko krisirik sakonena eragin zuena. Bada, gaur egun ukaezina da eraldaketa ekonomikoak, soziokulturalak eta ingurumenekoak gero eta konplexuagoak eta aldakorragoak direla mundu osoan, eta horrek guztiak eragin zuzena izango du nazioarteko nahiz tokiko turismo-sisteman. Izan ere, ezin dugu ahaztu gainean dugun krisi ekologikoa edo horri estu lotzen zaion energia-krisia.

Testuinguruak hiriko ekonomia berrantolatzea behartzen gaitu, jarduera ekonomikoak birkokatu eta Donostiak merkatu globalen gorabeheren aurrean duen zaurgarritasuna gutxitzeko. Ekonomia lurraldearen eta herritarren beharrekin lotu behar dugu, eta horretarako beharrezkoa da orekak berreskuratzea. Hau da, ekonomia dibertsifikatu behar da, modu orekatuan, eta betiere eredu iraunkor baten baitan. Horretarako, noski, ezinbestekoa da hiriko ekonomia orekatzea, aukerak zabaltzea eta turismo sektorea ez ezik, beste sektore eta jarduerak sustatzea (zientzia eta ikerkuntza, zaintza sektorea, ekonomia berdea...).

Joera berriak eta turismoaren gobernantza

Sektorearen zaurgarritasuna bere osoan azaleratzeaz gain, COVID-19aren krisiak beste fenomeno batzuk areagotu eta bizkortu ditu. Gaur egun turismo-sektorean eraginik handiena duten enpresak ez dira, hain zuzen ere, sektorekoak, baizik eta enpresa teknologikoak, GAFA deiturikoak (Google, Amazon, Facebook, Apple), sare sozialak eta TripAdvisor bezalako plataformak. Horrela dio indarrean Turismo Planak¹:

TURISMOAREN ARLOAN OPERADORE BERRI HORIEK AGERTU IZANAK ERABAT ALDATU DITU BAI MERKATARITZA-EREDUA, BAI TURISMO-PRODUKTUAK ETA -ZERBITZUAK, ETA JADA OSTATUETARA ETA BESTE HAINBAT JARDUERATARA (AUTOEN ALOKAIRUA, JATETXEAK, JARDUERAK, PAKETE OSOAK) ERE IRITSI DA. BESTALDE, GERO ETA AZKARRAGO AGERTZEN ARI DIRA TOKIAN TOKIKO TURISMO-ZERBITZUAK (IBILBIDE GIDATUAK, KULTURA, AISIA,...) MERKATURATZEKO ONLINE OPERADORE GLOBALAK ERE.

Aipatutakoari, gainera, nazioarteko inbertsio funtsen (artearen funts putreen) jarduna gehitu behar zaio. Euskal lurraldearen eta hirien erakargarritasuna sustatu eta

¹ Turismoko Gida Planaren eguneraketa. Donostia-San Sebastián 2017-2021. Dokumentu Exekutiboa (2021eko apirila, 34.or).

promozionatzearekin batera, inbertsiorako aukera-leiho bat zabaldu zaie aipatu funtsei. Turismo jarduerak behar dituen azpiegitura askoren atzean (hotelak, pisu turistikoak...) nazioarteko inbertsio funts indartsuak aurkitzen dira, eta aliantza honek (hiri-) lurraren gaineko praktika errentatzaile eta espekulatiboak areagotu ditu. Bestalde, inbertsio talde handi hauen etorrerak turismo- garapenean eragiteko gaitasuna murriztu dio euskal administrazioari zein gizarteari, erabakiguneak gero eta urrunago baitaude eta kapital fluxuak gero eta opakagoak baitira.

Horrek guztiak ezinbestekoa egiten du administrazio publikoen nahiz turismoaren gobernantza eredu berritu eta egokitzea.

2. TURISMOAREN BILAKAERA DONOSTIAN

2.1 PLAZA TURISTIKOAK

Plaza turistikoen kopurua asko hazi da azken urteotan Donostian. Alojamentu turistikoetako plazei dagokienez, hoteletan, aterpetxeetan, apartamentu turistikoetan, pentsioetan, aparthoteletan, erabilera turistikoko etxebizitzetan eta erabilera turistikoko geletan dauden plaza guztiei buruz ari gara.

Zoritarrez, gaur egun, Donostiako plaza turistikoen kopurua ezagutzeko gutxi gorabeherako kalkulua egin behar da, ez baitago turismo-ostatu mota guztietako jardueren kontzentrazio maila zehazten duen neurgailurik, ez hiria bere osotasunean hartuta, ez auzo bakoitzerako. EH Bilduk behin eta berriz eskatu dio Udal Gobernuari neurgailu hori ezartzeko, hiriko zenbait hirigintza-eremu jarduera-mota horien eremu saturatutzat izendatu ahal izateko, baina orain arte ez dute egin.

Plaza turistikoen bilakaera: Eneko Goia 2015eko ekainean Alkatetzara iritsi zenean, hirian 8.000 plaza inguru zeuden, eta, duela gutxi, Turismoko zinegotziak adierazi zuen une honetan 15.000 plaza inguru daudela eta, abian diren proiektu guztiak amaitzen direnean, 2024an 20.000 plaza inguru egongo direla.

Hotelak

Azken bi legegintzaldietan, Goiak 49 hotel berri irekitzeko baimena eman du. INEren arabera, gaur egun Donostian 169 establezimendu daude, eta Alkatetzara iritsi zenean, 120. Juan Karlos Izagirreraren legegintzaldian (2011-2015) 10 berri baino ez ziren baimendu, testuinguru oso desberdin batean, gainera.

Plazei dagokienez, Goia Alkatetzara iritsi zenean 5.200 ziren, eta orain 7.631 dira; hau da, %47 igo dira. Izagirre alkatearen garaian %6 igo ziren.

Eneko Goiak datozen hilabete eta urteetan irekiko diren ostatu berrietarako lizentziak ematen jarraitzen du: 300 plazako hostela, Matia kalean; Garibai 23ko eraikin osoa, apartamentu turistikoak jartzeko; «Student Hotel», Loiolako Erriberan (325 plaza); Hilton, Arte Ederretan; Grosen, Mariaren Bihotza eta Inmaculada eskola, eta abar.


Are gehiago, datozen urtetan kopuruak gora egiten jarraituko du, Donostia baita hiririk errentagarriena, Estatu osoan, hotel bat irekitzeko. **Excelturen arabera**, Donostia da, nabarmen, 2022ko udan diru-sarrera handiena izan duena plazako, 170 €-ko diru-sarrerarekin; ondoren, Bartzelona (145 €), Palma (124 €), Cadiz (117 €) eta Malaga (112 €).

Pisu turistikoen kopurua

Donostiara ere iritsi da pandemiaren ondorengo pisu turistikoen boom berria. Turismo-erabilerako etxebizitzaren kasuan ere ez dago udal adierazlerik auzoka; beraz, beste iturri batzuetara jo behar da, bai etxebizitza legeztatuen kopurua bai eskaintza klandestinoa ezagutzeko ere.

Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, 2022ko irailean, Donostian 1.429 etxe eta etxebizitza zeuden alta emanda turismo erabilerako etxebizitzaren erregistroan (1.292 etxebizitza osorik eta 137 etxebizitzetan gelak alokatuz).

AirDNAren arabera (mundu osoko pisu turistikoak monitorizatzen dituen ataria, erakundeek zein sektoreak erreferentzia gisa erabiltzen dutena) 2022ko hirugarren hiru hilabeteetan Donostian 2.092 eskaintza aktibo zeuden Interneteko plataformetan, eta igoera handia izan du aurtengo udan, errekor historiko berria markatu arte. Deigarria da Eusko Jaurlaritzaren erregistroko datuekin alderatuta dagoen desfasea (663 etxebizitza). Badirudi hirian eskaintza klandestinoa asko handitu dela, batez ere udako hilabeteetan.



Iturria: AirDNA

Pisu turistikoaren eskaintza, 2018ko pisu turistikoaren ordenantzaren eraginari dagokionez², Aparture elkarteak³ araudi berriak kopurua %25 murriztea lortu zuela adierazi izan du. Harrigarria bada ere, kopuru hori bere egin du Goiak. Baina, ikusi dugunez, Interneten bilaketa soil baten bidez egiazta daiteke 2022an inoizko zifrarik handiengan gaudela. Eta errekorra etxebizitza turistiko arautuen eta klandestinoen ataletan markatu da. Bietan.

Hoteletako plazen muga: Eneko Goiak aste batzuk daramatza hiriko zenbait tokitan hotel kopurua mugatuko duela iragartzen. Hala ere, aukera hori aztertzeke aukeratutako prozedurak (udal teknikarien bidez egin ordeztu lana azpikontratatu du) zenbait hilabetez luzatuko du neurria abian jartzeko aukera. Nolanahi ere, Goia iragartzen ari den ezer ez da gertatuko legegintzaldi honetan.

2.2 BIDAIARIEN SARRERA

Gezurra badirudi ere, oraindik ez dago turista guztien sarrera modu fidagarrian jasotzen duen neurgailurik. Beraz, turismoa igotzen edo jaisten den jakiteko erabiltzen den neurgailua Eustatek gaualdiei buruz ematen duena da.

Adierazle horren arabera, bidaiari-kopurua %48 igo da 2016. urteaz geroztik. Ikusten den bezala, datu hori hotel-plazaren igoeraren erritmo berean hazi da. Gaur egungo turismo plana onartu zenean, 2017an, adierazten zen urteko 1.250.000 gaualdiekin nahikoa zela,

² EAJ-PSEren Udal Gobernuaren narratibaren arabera, Donostian 2018ko Ordenantzaren aurretik pisu turistikoak ez zeuden araututa. Hala ere, dozenaka epai judizialek argi utzi dutenez, Donostian pisu turistikoak arautzen ziren 1995etik «lehen solairuko arauaren» bidez.

³ Gogoratu behar da Aparture izan zela araudi berriaren onarpenetik onura gehien atera zuena, araudi berria baino lehen eskaintzen zituen 600 pisuen %75 klandestinoak baitziren eta hortik aurrera gehienak legeztatu egin ziren.

TURISMOA GOBERNATZEKO PROPOSAMENA

eta helmugaren jasagarritasuna bilatu behar zela. Bada, aurten 1.750.000 inguru izango dira. Bi urteko pandemiaren ondoren, 2022. urtean, 2019. urtean baino %15 inguru gehiago izango dira.

Urtea	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Gaualdiak	917.262	954.446	991.235	1.038.540	1.167.549	1.265.546	1.293.880	1.413.745	1.524.704	594.511	1.074.157	1.750.000*
Igoera		4,05	3,85	4,77	12,42	8,39	2,24	9,3	7,85			+15%**

Iturria: Eustat. *Aurreikuspena ** 2019arekiko

EAJren eta PSEren gaur egungo Udal Gobernuak ez du argi hitz egiten datu horiek nahikoak diren ala ez. Duela gutxi, Turismoko zinegotziak esan zuen oraindik ere badela hotel gehiagotarako lekua Donostian⁴. Nolanahi ere, aurreikusitako hotel-proiektu guztiak amaitzen direnean, 2024an, 2 milioi gaualdi baino gehiago izango dira.

Exkursioistak. Tour operadoreak

«Txangozale»tzat hartzen dira egunpasa Donostiara iristen diren baina hemen lo egiten ez duten pertsonak. Udal Gobernuak, alkatea buru duela, hirian dagoen saturazio-pertzepzioa egunpasa datozen pertsonekin lotzen saiatu da, hoteletako plazen kopurua %49 handitu dela alde batera utzita.

Fenomeno konplexua da, eta ez dago beti turismoarekin lotuta. Izan ere, ez dira gauza bera euren hiriburura gestioak egitera, erosketak egitera edo lanera etortzen diren gipuzkoarrak edo Bordeletik eguna pasatzera etortzen diren turistak. Eta gauza bera esan daiteke gainerako euskal herritarrei buruz ere.

2016 eta 2019 artean kalkulatu zen urtean 2 milioi txangozale iristen zirela Donostiara. Hala ere, oso litekeena da egunpasa datozen turista kopurua gainerako turismo neurgailuen erritmoan ere hazi izana. Adibidez, bistakoa da gero eta talde antolatu gehiago daudela, batzuetan berrogeita hamar pertsona baino gehiagorekin, hiriko eremu jakin batzuetan.

Hain da kezagarria fenomenoak, ezen Turismoko zinegotziak kanpaina bat aurkeztu duen talde horietan zarataren ordenantza errespetarazteko. Hala ere, fenomenoaren beste ezaugarri batzuei dagokienez, gomendio hutsak besterik ez dituela egingo azaldu du

⁴ diarivovasco.com

Udal Gobernuak, hala nola talde bakoitzeko pertsona kopurua, eta horiek ordenantza batean arautzea baztertu du. Bien bitartean, Bartzelonak 15 laguneko taldeak baino ez ditu onartzen, eta Bilbok, Donostiako presio turistikoaren erdia duenak, «arazo bihurtu baino lehen» arautuko duela iragarri du. Izan ere, EAE gida turistikoaren jardura araututa ez duen bakarretakoa da.

2.3 ETXEBIZITZAREN PREZIOA, ESPEKULAZIOA ETA TURISMOA

Harreman zuzena dago jardura turistikoaren eta etxebizitzaren prezioaren igoeraren artean. Elkarri estu lotuta dauden bi fenomeno dira. Mundu osoko hainbat ikerketa zientifikok erakusten dute harreman hori. Eta indarrean dagoen Donostiako Turismo Planean ere, honako hau ohartarazten da⁵:

DONOSTIAN TURISMO JARDURA AZKAR HEDATZEAK ERE ONDORIO EKONOMIKO EZ HAIN POSITIBOAK DITU. HORIEN ARTEAN NABARMENTZEKO DA PREZIOEN IGOERA OROKORRA (LURZORUA, OSTALARITZA, ELIKADURA...), TOKIKO KOMUNITATEKO SEKTORE AHULENETAN ERAGIN NABARMENA DUENA. ALOKAIRU TURISTIKOA PARADIGMATIKOA DA HORRI DAGOKIONEZ. NAHIZ ETA LAN-EGOERA EZ DEN NABARMEN HOBETU KRISIAREN URTERIK GOGORRENETAN, FINANTZAKETA IREKITZEAK (BALDINTZA ESKURAGARRIAGOAK) ETA TURISMO-ALOKAIRUAREN ERRENTAGARRITASUN HANDIAK AREAGOTU EGIN DUTE ETXEBIZITZA/INBERTSIO EFEKTUA HIRIAREN ERDIALDEAN. HALA, LURZORUAREN BATEZ BESTEKO PREZIOA IGO EGIN DA, HASIERA BATEAN OSO HANDIA BAITZEN (3.894 EURO/M2 2016KO LEHEN HIRUHILEKOAN), ETA OHIKO IRAUPEN LUZEKO ALOKAIRUKO ETXEBIZITZEN ESKAINTZA NABARMEN MURRIZTU DA.


Gainera, **UPV/EHUK** Donostiari buruz egindako azterlan zientifiko espezifikoko batek frogatzen du erlazio zuzena dagoela etxebizitza turistikoak ugaritzearen eta etxebizitzaren prezioaren igoeraren artean. Hala ere, gaur egun, Eneko Goia alkateak harreman zuzen hori ukatzen jarraitzen du, eta etxebizitzaren prezioaren igoera beti lotzen du «Donostia beti garestia izan da» esaera zaharrarekin.

Jakina, Donostia inoiz ez da orain bezain garestia izan; gero eta kale gehiagotan, gainera.

Donostia da higiezinaren burbuilaren garaiko etxebizitzaren prezioa gainditzen duen Euskal Herriko hiriburua bakarra. Etxebizitzaren prezioa %4 baino gehiago igo da 2007tik, Bilbon eta Gasteizen %29 eta %22 jaitsi diren bitartean, adibidez.

⁵ Visit-Bizi Turismo Plana Donostia 2017-2021

Grafikoan ikus daitekeenez, Donostiak, 2015era arte, joera berak ditu, baina hortik aurrera hasten da desberdintzen, turismoa handitzearekin batera.



2.4 HERRITARREN EXPULTSIOA

Hiri guztietan gertatu da, eta Donostia ez da salbuespena: guneko turistiko guztietan jendea bere auzoetatik etengabe kanporatua izaten ari da.

	2011	2021	Dif 2011-2021	Dif 2011-2021
Gros	19401	18155	-6,42 %	-1246
Erdigunea	22506	22050	-2,03 %	-456
Parte Zaharra*	6105	5802	-4,96 %	-303
Antigua	15050	14262	-5,24 %	-788
Donostia	186312	187850	0,83 %	1538
Astigarraga	4805	7056	46,85 %	2251

Iturria: Udal errolda (*INE)

TURISMOA GOBERNATZEKO PROPOSAMENA

Argi dago biztanleria galerak eragina duela auzo turistikoetan, Donostiak biztanlea irabazten jarraitu duelako. Egia da hiriaren ekialdean ere biztanleria apur bat galtzen dela (Altza %1), baina ezin da alderatu eremu turistikoetako galerekin.

Baina turismoak duen eragina are hobeto ikus daiteke azterketa-maila jaisten badugu auzotik errolda-sekzioetara. INEk berriki publiko egindako erroldak datu oso argiak ematen ditu. Itsasertzetik gertuen dauden kaleetan biztanle galera oso handia da.

Sekzioa	Kaleak (l = bakoitiak; p = bikoitiak)	Galera portzentuala
5-008	Jose Maria Soroa 1-7, Marino Tabuyo 9, Txofre kalea 2-4, Ategorrieta 3-25, Bermingham 24-28, Nafarroa Et. 30-34, Erreterria 1-17-	-10,08
1-002	Kale Nagusia (p), Bulebarra 24-26, Enbeltran 14-16, F. Calbeton 38-54, Ijentea, Lasala, Mari	-10,81
4-005	Mirakruz 4-16, Iztueta 1-11, Kale Laburra 1-13, Iparragirre 2-6, Miserikordia (p), Tomas Gros 2-6	-12,07
1-005	Aldamar (i), Salamanca 11-13, S. Juan 15-27, S. Bizente, Jauregi Jenerala (i)	-12,45
6-003	Jauregi 38-42, Portuena 2-24, Untzaenea 2-6, Marañon dok 31-33, Donostizaharra 2-14, Erregezainak 18-64	-12,57
6-004	Benta Berri 5, Vazquez Montalban 2-28, Aizkorri 16-42, Gerraene 2-12, Zarautz 7-113	-12,97
2-002	Bengoetxea (p), Camino (i), Elkano (i), Garibai (p), Hernani (p), Legazpi (i), Okendo (i), Peñafiorida (i), Gipuzkoa plaza, Idiakez (p), Askatasunaren hb. (2-38), Txurruka 1-13	-14,57
6-006	Matia 13-37, Zumalakarregi 21-27, Aizkorri 8-12, Benta Berri 1-9, Juan de Garai 1-5, Guridi maisua 1-13, Sansustenea 6-8, Txalupagilene 2-6	-15,35
4-006	Mirakruz 3-13, Baratze kalea 2-4, Sekundino Esnaola 2-6, Iparragirre 8, Miserikordia (i), Kale Berria 16-22, Larroka 1-7	-18,57
4-001	Ramon Maria Lili 4-8, Peña y Goñi 10-16, Frantzia pasealekua 3-23, Agirre Miramon 2-10, Kolon 3-9, Iztueta 2-4, Usandizaga 2-8	-20
3-002	Gernikako Arbola 13-17, Larramendi 1-13, Prim 21-53, Errege-Erregina Katolikoak 12-18, Urbietta 41-53	-22,78
4-002	Zurriola 2-22, Imaz 4-8, Peña y Goñi 1-5, Ramon y Cajal 2-6, Usandizaga 3-27	-22,79
2-008	Zubieta 36-58, S. Martin 51-61, S. Bartolome 13-35, Aldapeta 2-20, Lertsundi, Marina 4-12	-24,63

Iturria: INE

Zaila da zehaztea nora joan diren erdiguneko auzoetatik kanporatuak izan diren pertsonak eta non ari diren orain beren bizi-proiektuak egiten, baina deigarria da azken hamarkadan Astigarragak izan duen hazkundera.

Baina turismoari lotutako espekulazioaren eragina fenomeno konplexua da, eta ez du populazioaren galeran bakarrik eragiten. Lehen bizitzeko erabiltzen ziren ehunka etxebizitza turismoan erabiltzeak eremu zehatzetan biztanleria galtzea eragin duen arren, hori ez da turismoaren ondorio bakarra; izan ere, espekulazioan aritzen diren enpresa-taldeak eta funts putreak Donostiako turismo eremuetan sartzen ari dira indar handiz.

Grosen fenomeno hori ikusten ari gara Azora funtsarekin, dozenaka maizter kaleratzen ari baitira luxuzko etxebizitzak eraikitzeko.

Azken hilabete hauetan, eztabaida sortu da hirian, jendeak bere auzoetan bizi eta zahartu nahi izatea «exquisitez» bat den ala ez. Lehen mailako eztabaida ideologikoa da hori, kasu honetan Goia alkatea bultzatzen ari den hiri-ereduari eragiten diona.

3. TURISMOA GOBERNATZEKO NEURRIAK

Donostian turismoa lehen mailako jarduera sozioekonomikoa da, eta, gainerako jarduerak bezala, arautu egin behar da. Izan ere, azken urteotan neurrigabeko hazkunde-dinamika batean murgilduta gaude, eta horrek ondorio ugari utzi ditu, horietako batzuk donostiarrentzat kaltegarriak. Alertak begi-bistakoak izan arren, Udal Gobernuak egiten utzi du. Esku-hartze publikoa oso mugatua izan da, eta erabakien ondorioak, hartu direnak eta hartu ez direnak, nabarmenak dira.

Donostiarrak erabakien erdigunean jarriko dituen turismo ereduaren alde egiten du EH Bilduk. Herritarrek konponbideak behar dituzte, eta horrek eskatzen du gobernantza partekatuaren bidez kudeatzea eta esku-hartze publiko irmoa egitea. Hau da, turismoa gobernatu egin behar da.

Horretarako berehala hartu daitezkeen neurri batzuk proposatzen ditugu:

1. **Gros, Antigua eta Erdigunea «eremu ase» izendatzea.** Auzo jakin batzuk «eremu ase» izendatu behar dira, inolako ikerketaren zain egon gabe. Turistifikazioak gehien kaltetutako edo gehien kaltetzear dituen auzoak direnez, Parte Zahar osoa, Erdialdea, Gros eta Antigua turismoari lotutako jarduera ekonomikoez gainezka dauden eremu izendatzea proposatzen dugu; horretarako behar diren ordenantzak aldatuz eta deklarazioak ekarriko dituen baldintzak betearazteko beharrezko neurriak hartuz.

Eremu ase izendatutako auzoetan lantaldeak eratu behar dira, auzokideekin eta tokiko eragileekin batera, erabakiak hartzeko eta beharrezkoak diren ekintzak abian jartzeko. Eta tokiko erakunde publikoen lehentasuna izango da beharrezkoak diren zerbitzu eta ekipamendu publikoak ziurtatzea, bai eta azpiegitura komunitarioak ere, auzoa bizigarria izaten jarrai dezan.

2. **Turismoaren itzulera sozial eta ekonomikoa bermatzea.** Turismoari lotutako jarduera ekonomikoetatik eratorritako irabaziak modu justuan banatu behar dira. Horretarako, lehenik eta behin, turismoak eragiten dituen sektoreetako lanpostuen kalitatea eta langileen lan-baldintza egokiak ziurtatu behar dira (batez ere ostalaritza eta alojamendu turistikoari dagozkien lan-hitzarmenak eguneratu eta egokituz). Bestalde, tasa turistikoaren ezarpen progresiboaren alde egiten dugu, lortutakoa donostiarren ongizatea babestu eta egunerokoa hobetzeko.
3. **Tour turistikoak arautzea:** turista-taldeek kopurua 15 lagunetara eta zenbait eremutan jarduera ordu puntetan mugatuz. Donostiarren harreman-espazioak babestu behar dira. Hiri edo auzo bat bizigarria izateko, espazio publikoaren kalitatea lehenetsi behar da. Horretarako ezinbestekoa da hainbat eremutan, Parte Zaharrean kasu, tour turistikoak arautzea, besteak beste, turista-taldeek dimentsioa (turista kopurua) eta jarduera (ordutegia...) mugatuz. Erregulazioak, aldi berean, turismo-gidarien lan-baldintzen edo turistak jasotzen duen informazioaren kalitatea bermatzen lagunduko du, Donostia Turismoari tour-operatzaileen jarraipen zuzena egitea ahalbidetuko baitio.
4. **Disuasio aparkalekuak:** garraio pribatuekin gurera etortzen den turista eta bisitarien oldeak sortzen dituen mugikortasun arazoak eta erdialdearen kolapsoa ekiditeko neurriak hartu behar dira; hala nola, «disuasio aparkalekuak» ezarriz hiriko zenbait tokitan. Adibidez, Igaran eta ospitaleetan; eta Illunbekoa urte osora zabaldu.

Berehala ezar daitezkeen neurri horiez gain, arnas luzeagoko beste neurri batzuk ere beharrezkoak dira.

5. **Donostiako ekonomia dibertsifikatzea:** Turismoaren mende ez dagoen hiri ekonomia behar da. COVID-19 birusaren pandemiak agerian utzi du zeinen zaugarria den turismoa, eta ondorioz, baita Donostiak merkatu globalen gorabeheren aurrean duen zaugarritasuna ere. Donostiaren etorkizuna hiriko ekonomia tokikotu eta dibertsifikatuz pasatzen da, eta horretarako, ezinbestekoa da turismoak hiriko ekonomian duen pisua orekatzea; hots, ekonomiak turismoan gutxiago ardazteko aukera emango duten alternatibak sustatzea (zientzia eta ikerkuntza, zaintza sektorea, ekonomia berdea...). Donostiako turismoak bere «B plan» propioa behar du, besteak beste, jarduera ekonomiko honekin lotutako lanpostuak beste sektore batzuetan egokitzeko trantsizioa errazteko neurriak jasoko dituen.

lido horretan, premiazkoa da gentrifikazio komertzialaren aurkako neurriak hartzea, bai auzo berrietara hedatzea geldiarazteko, bai eragindako auzoetan dagoeneko izan dituen ondorioak lehengoratzeko. Horien artean, proposatzen dugu turismo-jardueraz gainezka deklaraturako auzoetan, merkataritza-lokalak turismoaz bestelako jardueretara bideratzea sustatzea; batez ere, eguneroko erabilerako jarduera ekonomikoetara (hurbileko jarduerak). Bestalde, hiriko hainbat eremu (Parte Zaharra, Erdialdea edo Zurriola pasealekua) «turista-olde handiko gunee» izendatzen dituen Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren 2022ko urtarrilaren 31ko ebazpenak tokiko merkataritzan izan duen eragina aztertu behar da, eta ondorioek hala eskatzen badute, berau bertan behera uztea proposatuko dugu.

- 6. Karga ahalmena: Donostiako auzoen turistifikazio indizea.** Turismoaren karga-ahalmena ezarri behar da, bai hiri osoarentzat, bai auzo bakoitzarentzat. Turismoa oso jarduera lokalizatua da eta ez du eragin bera lurralde osoan. Donostian ere errealitate desberdinak ditugu, eta beharrezkoa da auzoak jasaten duten turistifikazio-mailaren arabera bereiziko dituen berariazko analisi-tresna bat diseinatzea eta aplikatzea. Horretarako, adierazle geoerreferentziatuen indize bat sortzea proposatzen du EH Bilduk: «Donostiako auzoen turistifikazio indizea». Indize horrek auzo bakoitzaren saturazio-maila edo karga-ahalmena neurtzeko balioko du, baina, batez ere, biztanleria egoiliarren kalteberatasun- edo erresilientzia-maila neurtzeko eta horren arabera neurriak hartzeko.

OMTren arabera, hauek dira neurtu beharreko parametroak: a) Karga ekologikorako gaitasuna; b) karga fisikorako gaitasuna (baliabideek eta ekipamenduek bisitari-kopuruari eusteko duten gaitasuna); c) bizilagunen karga sozial edo psikologikoa (pertzepzioa); d) erabiltzailearen karga psikologikoa (esperientziaren kalitatearekin lotuta: muga honetan, bisitariak, dagoen saturazioa dela eta, helmuga alternatiboak bilatzen hasten dira, kasu askotan bisitarien gorakada kalitatearen beherakadakiko proportzionala baita); e) karga ekonomikorako gaitasuna (tokiko ekonomiaren jarduera turistikoak integratzeko gaitasuna, beste jarduera ekonomiko batzuk lekuz aldatu gabe).

Hiriaren karga-ahalmena eta auzoen turistifikazio-indizea ezartzen diren bitartean, bertan behera utzi behar dira turismo-ostatu berriak eraikitzeke eta irekitzeko lizentziak (hotelak, pisu turistikoak, ostatua...).

- 7. Etxebizitzaren bizitegi erabilera blindatu behar da,** erabilera turistikoaren gainetik. Horretarako, 2018ra arte indarrean zegoen Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak

jasotzen zuen araua berreskuratuko dugu; hots, lehen solairutik gora erabilera turistikoko etxebizitzak ezartzea eragozten zuena. Halaber, etxebizitza turistikoa alokairu tradizionalaren merkatura itzul daitezten, edo alokairu arruntean eskaintzen ari direnak bertan gera daitezten, laguntzeko neurriak hartuko ditugu; hala nola, hobari fiskala (OHZ murriztea) baliatuz edo erabilera turistikoa ahalbidetzen duten lizentziei iraungitze data ezarriz.

8. **Turismoa gobernatu behar da**, hiriaren eta auzoen oreka ziurtatuko duten arauak finkatu eta neurriak hartzeko. Horretarako, Donostia Turismoa sozietatearen funtzioak eta antolamendu eredua berregokitu behar dira, Turismoko Zuzendaritza Planak jasotako irizpideen arabera gobernantza eta jarduera egikaritzeko. Turismoaren gobernantza eredu berriak, gainera, bizilagunak izango ditu erdigunean, donostiarron ongizatea zaindu eta hobetzeari begira.